30 mayo de 2026

# Noticias e informaciones de interés

## LLAMATIVA MOVILIZACIÓN EN BILBAO POR LA ACCESIBILIDAD UNIVERSAL A LOS TRENES DE LA LÍNEA C-3

El lunes una llamativa y vistosa manifestación arrancó de la plaza Circular de Bilbao y culminó ante la sede de Euskal Trenbide Sarea (ETS), en el edificio Albia. Movilización que tuvo por objeto denunciar los problemas de accesibilidad en las estaciones y en los trenes de cercanías de la Línea C-3 (entre Urduña y Bilbao-Abando) y exigir que de una vez por todas se tomen las medidas adecuadas para que las personas con movilidad reducida u otras dificultades puedan acceder a esos trenes y disponer de los mismos derechos de movilidad en un servicio público, que cualquier otra persona.

Previamente al inicio de la manifestación, un centenar de compañeros/as pensionistas de los pueblos por donde circula esa Línea C-3, viajaron en el tren hasta la estación de Bilbao-Abando, próxima a esa plaza Circular. Y allí convergieron con otras 400 personas pensionistas de Bilbao, que encabezados




por varias compañeras/os en sillas de ruedas, habían arrancado a las 12:00 desde el Ayuntamiento. Tanto en las estaciones del tren, como en el tren mismo, se repartieron unas 2.000 hojas informativas, que fueron acogidas con aceptación, entre personas que acudían a las estaciones y viajeras en el tren.

Los aplausos, gritos de ánimo, el corear de consignas y el despliegue de pancartas dieron colorido y visibilidad al inicio de la movilización, generando la atención de muchas personas que pasan por esa plaza, que se hizo aún más patente cuando ya eran una docena de personas en sillas de ruedas, así como alguna otra con muletas, quienes encabezaban la manifestación que tras un corto recorrido culminó con concentración ante de la sede de ETS.

A sus puertas se dio una rueda de prensa, a la que acudieron diversos medios de comunicación, sobre todo radios, donde se dio una información amplia sobre los motivos de la protesta, así como de que se iba a entregar una carta, junto con un dossier amplio del deterioro de muchas estaciones y apeaderos de la Línea C-3, al director de Euskal Trenbide Sarea. Ni siquiera se dignaron dar acuse de recibo de lo que se presentaba, alegando que comunicaciones o cartas de ese tipo han de hacerse por medios electrónicos, siempre que se trate de la petición de un colectivo. Ese trámite ya se cumplió de urgencia a última hora de la tarde del mismo lunes.

Siempre que se trata de una campaña de protesta y movilización, con cierto arrope social, las instituciones, en este caso las relacionadas con los trenes de cercanías, tratan de aparecer de inmediato diciendo que ya tienen previstas algunas medidas de solución al problema planteado, que tienen más de propaganda que de medidas prácticas y eficaces, tal como está ocurriendo estos días. Pero desde la Plataforma de Accesibilidad de la Línea C-3 tienen muy claro que, si no se sigue presionando socialmente, puede demorarse *sine die* la adecuación de las estaciones y trenes para que las personas con movilidad recudida u otras dificultades puedan hacer uso de ese servicio de transporte público.

# MODIFICACIONES EN EL COPAGO FARMACÉUTICO

Con fecha 14 de mayo han entrado en vigor las modificaciones en el copago sanitario introducidas en el Real Decreto Ley (RDL) 11/2026 de 12 de mayo. En este Real Decreto se revisan tanto algunos de los umbrales de renta que figuran en la base liquidable general y del ahorro consignada en la declaración del IRPF, como los topes que se aplican en función de las rentas. Y los límites de rentas y las aportaciones son diferentes según se trate de personas que siguen en activo trabajando o de pensionistas.

## Aportaciones a realizar por las personas pensionistas y sus beneficiarias/os

- Rentas inferiores a 18.000 euros aportarán un máximo de 8,23 euros al mes.
- Rentas iguales o superiores a 18.000 e inferiores a 60.000 euros aportarán un máximo de 13.37 euros al mes (tramo nuevo).
- Rentas iguales o superiores a 60.000 e inferiores a 100.000 euros aportarán un máximo de 18,52 euros al mes.
- Rentas iguales o superiores a 100.000 euros aportarán un máximo de 61,75 euros al mes.

Es importante reseñar que la aportación de personas en activo y personas pensionistas es igual en el supuesto de que sus rentas sean superiores a 100.000 euros, con un porcentaje del 60% sobre el precio de venta al público.

En los tratamientos crónicos las personas con rentas más bajas tanto Activas como Pensionistas aportarán un 10%, y los medicamentos de los grupos ATC (insulinas, anticoagulantes etc., tratamientos de larga duración) tendrán una aportación reducida de un máximo de 4,98 euros al mes. El importe de las aportaciones que excedan de las cantidades citadas será reintegrado por la Comunidad Autónoma correspondiente con periodicidad semestral.

## Están exentas/os del copago farmacéutico los siguientes colectivos:

- Personas con rentas inferiores a 5.635 euros y aquellas sin estar obligadas a presentar declaración del IRPF perciban rentas anuales inferiores a 11.200 euros.
- Personas perceptoras de pensiones no contributivas.
- Personas perceptoras de rentas de integración social.
- Personas que han perdido el derecho al subsidio por desempleo mientras estén en esta situación.
- Personas afectadas por el síndrome tóxico.
- Personas menores con una discapacidad reconocida igual o superior al 33%.
- Personas beneficiarias del Ingreso Mínimo Vital.
- Personas con tratamientos derivados de Accidente de trabajo y Enfermedad profesional.
- Personas perceptoras de la prestación económica de la Seguridad Social por hijo/a a cargo.
- Pensionistas perceptoras de una pensión con complemento a mínimos (nuevo).

Se evita así que aquellas personas pensionistas que estaban exentas, al aplicarles la subida anual de su pensión, aunque fuera una pequeña cantidad, pasaran a perder la exención porque ya no cumplían los requisitos de los límites de rentas.




Además, este RDL en una disposición transitoria recoge que seguirán estando exentas las personas pensionistas que, aunque no cobren complementos a mínimos, tuvieran rentas bajas y ya lo estaban conforme a la legislación anterior.

Para el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria los servicios públicos de salud, así como los medicamentos prescritos por éstos, deben tener un carácter universal y gratuito, tal como estaba establecido hasta el 30 de junio de 2012. La imposición del sistema de copagos supuso un recorte

en el sistema de salud pública. Restablecer su carácter gratuito debe constituir una exigencia de todos los colectivos y personas que defendemos un sistema público de salud, universal y de calidad.

## COMPLEMENTO A PENSIONES MÍNIMAS CONTRIBUTIVAS EN NAVARRA

Desde el Movimiento Pensionista de Navarra quieren informar a todas las personas que les puede repercutir en Navarra, que estamos entrando en el último mes para hacer la declaración de la Renta 2025, siendo el 25 de junio la fecha límite inamovible.

Y, ¡ojo! Una vez más, vuelven a recordar que, para tener derecho al complemento a las pensiones mínimas contributivas del gobierno de Navarra, en este caso hasta los 1.035 euros por 14 pagas, cantidad correspondiente al año 2025, es absolutamente necesario hacer la declaración de la renta IRPF, pues el citado complemento solo se puede cobrar como deducción en negativo en la declaración que se presenta en el 2026, es decir la diferencia hasta 1.035 x 14 pagas.

Insisten en que con la declaración de este año 2026, se cobrará el complemento a 1.035 euros del año 2025 y, de paso, recuerdan que en el caso de las pensiones de viudedad y Sovi (seguro obligatorio de




vejez e invalidez), se pueden cobrar anticipadamente, mes a mes, a partir del mes de enero del año correspondiente. En este caso, año 2026, estarán cobrando hasta 1.100 euros por 14 mensualidades.

Para cobrarlo mes a mes, es necesario solicitarlo en el departamento de Asuntos Sociales del gobierno de Navarra. Y para más información hay que acudir a los centros de Atención Social de base (barrio o pueblo).

## CADENA HUMANA EN BILBAO CONTRA LAS GUERRAS Y POR UNA VIDA DIGNA PARA TODOS Y TODAS

El miércoles se llevó a cabo una cadena humana en Bilbao, convocada por decenas de colectivos sociales y sindicales para denunciar la barbarie de las guerras, los genocidios y el incremento de los gastos militares en muchos países; y exigir, al mismo tiempo, el derecho a unas vidas dignas para todos los pueblos y todas las personas.

Partió a las 19:00 horas desde la plaza de la Convivencia de Bilbao, cruzó la Ría del Nervión por el puente de Zubizuri, de allí se dirigió hasta el Ayuntamiento, donde volvió a atravesar la ría en sentido contrario por el puente del Ayuntamiento. Y desde allí, por el muelle de Ripa se dirigió al puente del Arriaga, con lo que volvieron a cruzar la ría y acabar concentrándose en la plaza del Teatro Arriaga. Participaron cientos de personas, conformando una cadena humana muy colorida que tuvo la atención de muchas personas viandantes. Las consignas de denuncia contra Israel por su brutal represión y




genocidio sobre el pueblo palestino y la exigencia de boicot, fueron voceadas en todo el recorrido.

Junto a la denuncia de las guerras y genocidios y la solidaridad con los pueblos y naciones que los sufren, en la protesta se destacó que, estas guerras obedecen a los grandes intereses capitalistas y las potencias estatales que los protegen, y que nos perjudican a los y las trabajadoras, a las personas pensionistas y demás sectores populares de otros muchos países, a través de los recortes de derechos sociales, civiles y democráticos, vinculados en especial al incremento de los gastos públicos en la política armamentística. Pues como vienen manifestando sin tapujos los dirigentes de la OTAN y de la Unión Europea, el aumento de los gastos militares en los estados europeos debe financiarse mediante recortes en pensiones, sanidad y educación.

En el manifiesto que se leyó al término del acto se recogía que "Euskal Herria se ha manifestado claramente en contra de la guerra una y otra vez. Dijimos ¡NO a la OTAN! y tuvimos un amplio movimiento de insumisión". Asimismo, la exigencia a los gobiernos de la CAV y Navarra, así como a los partidos políticos vascos con representación en las distintas instituciones de Hego Euskal Herria, en Madrid y en Europa, para que asuman compromisos y tomen medidas en diferentes ámbitos: 1.- Que Euskal Herria sea un territorio pacífico y desmilitarizado. 2.- No al negocio de la guerra. 3.- Recursos públicos para garantizar vidas dignas. 4.- No al autoritarismo y al auge reaccionario.

Los colectivos convocantes de la protesta se proponen continuar con las movilizaciones a lo largo de todo este año. Ayer, 29 de mayo, también se celebró una nutrida manifestación que partió del Gobierno Militar de Gasteiz y marchó hasta el Parlamento reivindicando *"insumisión a las guerras"*. Y el 1 de junio, a las 11:00 horas se organizará una concentración y una performance frente al Gobierno Militar de Iruñea.




El rincón de Tasio

## INACEPTABLE CARGA DE LA ERTZAINTZA CONTRA LOS/LAS ACTIVISTAS DE LA FLOTILLA GLOBAL SUMUD EN EL AEROPUERTO DE LOIU

Las imágenes, el pasado día 25, de la carga de la Ertzaintza en el aeropuerto de Loiu, contra los y las activistas de la Flotilla Global Sumud, que volvían después de las detenciones y agresiones de la armada israelí, tuvieron un gran impacto en Euskal Herria y en otros países.

Y no fue para menos, pues pusieron de manifiesto una actuación policial muy violenta, desproporcionada e inaceptable contra seis activistas solidarios con Gaza y Palestina, que solo pensaban arribar a Euskal Herria y recibir de un modo pacífico el apoyo afectivo de familiares y solidario de otros activistas sociales, amigas/os, etc.

Lo grave del caso es que no se trata de un caso aislado de violencia injustificada de la Ertzaintza, sino que se viene repitiendo en más ocasiones, sobre todo ante diversas protestas sociales, sin que por la consejería de Seguridad ni del Gobierno Vasco tomen medidas para que esto no se repita. Al contrario, tratan de justificar esas actuaciones lo que no hace más que envalentonar a quienes las ejecutan.

El mejor modo de pararles los pies es responder a esas agresiones policiales con protestas sociales masivas, como la que se llevó a cabo el domingo al mediodía en Bilbao. Y no solo para poner freno a esa represión policial, sino para continuar defendiendo con firmeza al pueblo palestino, pues como señalan los y las activistas solidarias de la Flotilla, son los palestinos y las palestinas quienes continúan sufriendo todos los días la represión despiadada y el genocidio por parte de Israel y necesitan más que nunca una amplia y masiva solidaridad internacional.

2026ko maiatzaren 30a

# Albiste eta informazio interesgarriak

## MOBILIZAZIO DEIGARRIA BILBON, C-3 LINEAKO TRENEN IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ESKATZEKO

Astelehenean manifestazio deigarri eta ikusgarri bat abiatu zen Bilboko Plaza Biribiletik eta Euskal Trenbide Sarearen (ETS) egoitzaren aurrean, Albia eraikinean, amaitu zen. Mobilizazio horren helburua C-3 lineako geltokietan eta aldiriko trenetan (Urduña eta Bilbo-Abando artean) dauden irisgarritasun-arazoak salatzea izan zen, eta behingoz mugikortasun murriztua edo beste zailtasun batzuk dituzten pertsonek tren horietara iritsi ahal izateko neurri egokiak har ditzaten, eta zerbitzu publiko batean behar den mugikortasun-eskubide unibertsala eskatzea.




Manifestazioa hasi aurretik, C-3 linea pasatzen den herrietako ehun bat pentsiodun Plaza Zirkularretik gertu dagoen Bilbo-Abando geltokiraino iritsi ziren. Geltoki horren aurrean elkartu ziren 12:00etan hainbat aulki gurpildunak zituzten kideak buru direla Bilboko Udaletxetik abiatuta beste 400 pentsiodunekin. Tren geltokietan eta trenean bertan 2.000 bat esku-orri banatu ziren, eta adeitasunez hartzen zuten informazio hori geltokietara hurbiltzen zirenak eta treneko bidaiariak.

Txaloak, animo oihuak, botatako kontsignak eta abarrek kolorea eta ikusgarritasuna eman zioten pankartak zabaldu ziren uneari mobilizazioaren hasieran, eta plaza horretatik igarotzen diren pertsona askoren arreta erakarri zuten, are nabarmenagoa izan zen makuluekin zihoazen batzuek, eta aulki gurpildunean zeuden dozena bat pertsona buruan jarri zirenean. Manifestazioa ibilbide labur baten ondoren ETSren egoitzaren aurrean amaitu zen elkarretaratze batekin.

Atarian prentsaurreko bat egin zen, eta hainbat komunikabide bertaratu ziren, batez ere irratiak, non protestaren arrazoiei buruzko informazio zabala eman zitzaien, eta adierazi zitzaien gutun bat entregatuko zitzaiola C-3 linearen geltoki eta geraleku askoren narriadurari buruzko dosier zabal batekin Euskal Trenbide Sareko zuzendariari. Hala ere, aurkeztutako dokumentazioa jaso izanaren ziurtagiririk ere ez zuten eman nahi izan Euskal Trenbideko Zuzendaritza horretan, horrelako komunikazioak edota gutunak bitarteko elektronikoen bidez egin behar direla argudiatuta, betiere kolektibo baten eskaera bada. Izapide hori urgentziaz bete zen astelehen arratsaldeko azken orduan.

Gizartearen elkartasuna agertzen den protesta- eta mobilizazio-kanpaina guztietan, kasu honetan aldiriko trenekin gertatu den moduan, erakundeek, berehala agertzen dira esanez planteatutako arazoa konpontzeko neurri batzuk aurreikusita dituztela, eta horrek benetan propaganda kutsu handia izaten du eta neurri praktiko eta eraginkor gutxi, egun hauetan gertatzen ari den bezala. Baina C-3 linearen Irisgarritasun Plataformatik oso argi dute, sozialki presionatzen jarraitzen ez bada, geltokien eta trenen egokitzapena sine die atzeratu daitekeela, mugikortasun murriztua edo bestelako zailtasunak dituzten pertsonek garraio publikoko zerbitzu hori erabili ahal izan dezaten.

# FARMAZIA-KOORDAINKETAREN ALDAKETAK

Maiatzaren 14an sartu dira indarrean maiatzaren 12ko 11/2026 Errege Lege Dekretuan (ELD) sartutako koordainketa sanitarioaren aldaketak. Errege Dekretu honetan, likidazio-oinarri orokorrean eta PFEZren aitorpenean kontsignatutako aurrezkiaren oinarrian agertzen diren errenta-atalase batzuk eta errenten arabera aplikatzen diren mugak berrikusten dira. Eta errenten eta ekarpenen mugak desberdinak dira lanean jarraitzen duten pertsonak izan edota pentsiodunak direnen artean.

**Pentsiodunek eta haien onuradunek egin beharreko ekarpenak**

- 18.000 eurotik beherako errentek gehienez 8,23 euroko ekarpena egingo dute hilean.
- 18.000 euroko edo hortik gorako eta 60.000 eurotik beherako errentek 13,37 euroko gehienezko ekarpena egingo dute hilean (tarte berria).
- 60.000 euroko edo hortik gorako eta 100.000 eurotik beherako errentek hilean 18,52 euroko gehienezko ekarpena egingo dute.
- 100.000 euroko edo hortik gorako errentek hilean 61,75 euroko ekarpena egingo dute gehienez.

Garrantzitsua da azpimarratzea jarduneko pertsonen eta pentsiodunen ekarpena berdina dela errentak 100.000 eurotik gorakoak badira, publikoarentzako salmenta-prezioaren %60.

Tratamendu kronikoetan, errenta baxuenak dituzten pertsonek, bai aktiboek, bai pentsiodunek, %10eko ekarpena egingo dute, eta ATC taldeetako sendagaiek (intsulinak, antikoagulatzaileak, etab., iraupen luzeko tratamenduak) 4,98 euroko gehienezko ekarpen murriztua izango dute hilean. Aipatutako zenbatekoak gainditzen dituzten ekarpenen zenbatekoa sei hilean behin itzuliko du dagokion autonomia-erkidegoak.

**Farmazia-koordainketatik salbuetsita daude honako kolektibo hauek:**

- 5.635 eurotik beherako errentak dituztenek eta PFEZren aitorpena aurkeztu beharrik ez duten 11.200 eurotik beherako urteko errentak jasotzen dituztenak.
- Kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten pertsonak.
- Gizarteratzeko errentak jasotzen dituzten pertsonak.
- Langabezia-sorospena jasotzeko eskubidea galdu duten pertsonak, egoera horretan dauden bitartean.
- Sindrome toxikoa duten pertsonak.
- %33ko edo gehiagoko desgaitasun aitortua duten adingabeak.
- Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren onuradunak.
- Lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak eragindako tratamenduak dituzten pertsonak.
- Ardurapeko seme-alaba izateagatik Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoa jasotzen duten pertsonak.
- Gutxieneko osagarria jasotzen duten pentsiodunak (berria).

Horrela, salbuetsita zeuden pentsiodunek, beren pentsioaren urteko igoera aplikatzean, nahiz eta kopuru txikia izan, salbuespena galtzea saihesten da, jada ez zituztelako errenten mugen baldintzak betetzen.

Gainera, Errege Dekretu Legegile horrek xedapen iragankor batean jasotzen duenez, salbuetsita




egongo dira gutxieneko osagarririk kobratzen ez duten arren errenta baxuak dituzten eta aurreko legeriarekin bat zetozen pentsiodunak.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduarentzat, osasun-zerbitzu publikoek eta haiek agindutako sendagaiek unibertsalak eta doakoak izan behar dute, 2012ko ekainaren 30era arte ezarrita zegoen

bezala. Koordainketen sistemaren ezarpenak murrizketa ekarri zuen osasun publikoaren sisteman. Osasun-sistema publikoa, unibertsala eta kalitatezkoa, defendatzen dugun kolektibo eta pertsona guztien eskakizuna izan behar du haren doako izaera berrezartzea.

## NAFARROAKO GUTXIENEKO PENTSIO KONTRIBUTIBOEN OSAGARRIA

Nafarroako Pentsiodunen Mugimenduak Nafarroan eragin diezaioketen pertsona guztiei jakinarazi nahi die 2025eko Errenta Aitorpena egiteko azken hilabetean sartzen ari garela, eta ekainaren 25a dela azken eguna.

Eta, kontuz! Beste behin ere, gogorarazten dute, Nafarroako Gobernuaren gutxieneko pentsio kontributiboen osagarria jasotzeko eskubidea izateko, kasu honetan 1.035 euro arte 14 ordainsaritan, 2025. urteari dagokion kopurua, ezinbestekoa dela PFEZren aitorpena egitea, osagarri hori 2026an aurkezten den aitorpenean soilik kobratu baitaiteke kenkari negatibo gisa, hau da, 1.035 x 14 ordainsarirainoko aldea.

Azpimarratu dute 2026ko aitorpenarekin 2025eko 1.035 euroko osagarria kobratuko dela, eta, bide batez, gogorarazi dute alarguntasun eta Sovi pentsioen kasuan (zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko asegurua), aldez aurretik kobratu daitezkeela, hilero-hilero, dagokion urteko urtarriletik aurrera. Kasu horretan, 2026. urtean, 1.100 euro kobratuko dituzte 14 hilabetetan.

Hilero-hilero kobratzeko, Nafarroako Gobernuko Gizarte Gaietako Departamentuan eskatu behar da.




Informazio gehiago nahi izanez gero, oinarrizko gizarte-arretako zentroetara jo behar da (auzora edo herrira).

## GERREN AURKAKO ETA GUZTIONTZAKO BIZITZA DUINAREN ALDEKO GIZA KATEA BILBON

Asteazkenean giza kate bat egin zen Bilbon, dozenaka kolektibo sozial eta sindikalek deituta, gerren basakeria, genozidioak eta herrialde askotan gastu militarrak areagotu izana salatzeko; eta, aldi berean, herri eta pertsona guztientzat bizitza duinak izateko eskubidea eskatzeko.

19:00etan abiatu zen Bilboko Bizikidetza plazatik, Nerbioi itsasadarra zeharkatu zuen Zubizuriko zubitik, eta handik Udaletxeraino joan zen. Han, itsasadarra zeharkatu zuen berriro, kontrako noranzkoan, Udaletxeko zubitik. Eta handik, Erripako kaitik Arriagako zubira zuzendu zen, eta, horrela, berriro zeharkatu zuten itsasadarra, eta, azkenean, Arriaga Antzokiko plazan bildu ziren. Ehunka lagunek hartu zuten parte, eta giza-kate koloretsua osatu zuten, oinez paseoan zebilen askoren arreta jaso zuena. Israelen aurkako kontsignak, palestinar herriaren errepresio eta genozidio bortitzaren aurka eta boikota eskatuz, ibilbide osoan zehar ahoskatu ziren.

Gerrak eta genozidioak salatzearekin eta horiek jasaten dituzten herri eta nazioekiko elkartasunarekin batera, protestan nabarmendu zen gerra horiek interes kapitalista handien eta horiek babesten dituzten potentzia estatalen ondorio direla, eta kalte egiten digutela beste herrialde askotako langileei, pentsiodunei eta gainerako herritarrei, eskubide sozial, zibil eta demokratikoen murrizketen bidez, batez ere armagintza politikan gastu publikoak handitzeari lotuta baitoa. Izan ere, NATOko eta Europar Batasuneko agintariek argi eta garbi adierazi dutenez, Europako estatuetako gastu militarren igoera pentsioen, osasunaren eta hezkuntzaren murrizketen bidez finantzatuko baita.

Ekitaldiaren amaieran irakurri zen manifestuan honako hau jaso zen: “Euskal Herria gerraren aurka azaldu da behin eta berriz. NATOri EZ! esan genion, eta intsumisio mugimendu zabala izan genuen”. Halaber, EAEko eta Nafarroako gobernuei eta Hego Euskal Herriko erakundeetan, Madrilen eta Europan

ordezkaritza duten euskal alderdi politikoei hainbat arlotan konpromisoak hartzeko eta neurriak hartzeko eskatzea: 1.- Euskal Herria lurralde baketsua eta desmilitarizatua izatea. 2.- Gerraren negozioari ez! 3.- Bizitza duinak bermatzeko baliabide publikoak. 4.- Autoritarismoari eta gorakada erreakzionarioari ez!

Protestarako deia egin duten taldeek aurten ere mobilizazioekin jarraitzea proposatu dute. Atzo, maiatzak 29, manifestazio handi bat egin zen, Gasteizko Gobernu Militarretik abiatu eta Legebiltzarrera joan zena, “gerrekiko intsumisioa” aldarrikatuz. Eta ekainaren 1ean, 11:00etan, kontzentrazioa eta performance bat antolatuko dira Iruñeko Gobernu Militarraren aurrean.




Tasioren txokoa

## ONARTEZINA DA ERTZAINTZAK GLOBAL SUMUD ONTZIDIKO EKINTZAILEEN AURKA EGINDAKO KARGA LOIUKO AIREPORTUAN

Joan den hilaren 25ean, Ertzaintzak Loiuko aireportuan Flotilla Global Sumudeko ekintzaileen aurka egindako kargaren irudiek eragin handia izan zuten Euskal Herrian eta beste herrialde batzuetan.

Eta ez zen gutxiagorako, Gazarekin eta Palestinarekin solidarioak ziren sei aktibisten aurka poliziaren jarduera oso bortitza, neurrigabea eta onartezina agerian utzi baitzuten, Euskal Herrira heldu eta modu baketsuan beste aktibista sozial, lagun, senideen eta solidarioaren elkartasun afektiboa jasotzea baino pentsatzen ez zutenak.

Kasuaren larriena da ez dela Ertzaintzaren justifikaziorik gabeko indarkeria kasu isolatu bat, baizik eta gehiagotan errepikatu dela, batez ere hainbat protesta sozialak direnean, eta Segurtasun Sailak eta Eusko Jaurlaritzak ez dutela neurririk hartzen hori errepika ez dadin. Aitzitik, jarduketa horiek justifikatzen saiatzen dira, eta horrek ekintza horiek gauzatzen dituztenak adoretu besterik ez ditu egiten.

Polizien eraso horiei protesta sozial masiboekin erantzutea da geldiarazteko modurik onena, igande eguerdian Bilbon egin zenaren antzera. Eta ez bakarrik polizien errepresio hori geldiarazteko, baizik eta herri palestinarra irmo defendatzen jarraitzeko, Flotillako aktibista solidarioek adierazten duten bezala, palestinarrak baitira egunero Israelen errepresio gupidagabea eta genozidioa jasaten jarraitzen dutenak eta inoiz baino gehiago nazioarteko elkartasun zabal eta masiboa behar dutenak.

